


Belunza-Inoso

Por el hayedo de Altube



Localización geográfica


El recorrido transcurre íntegramente por tierras de Urkabustaiz, por las faldas de la llamada sierra de Urkabustaiz. Esta sierra apenas aparenta tener relieve desde los pueblos de Gujuli Oiardo o Belunza, pero se presenta como un gran farallón desde el fondo de valle del río Altube o desde la propia autopista A-68. De esta sierra caen los arroyos Oiardo o Jaundia y Altube. El primero en forma de salto de 100 metros, y el segundo en forma de pequeñas cascadas. Antes de llegar a Ziorruga, ambos ríos se unen.

Fauna y Flora

Hay quien sostiene que el hayedo de Altube es el segundo más extenso de la península. Seguramente es una exageración, pero sin duda se trata de un magnífico bosque que se extiende desde la sierra de Urkabustaiz hasta el Gorbea. En este entorno forestal habitan especies como el ciervo, el corzo, picos picapinos y otros pájaros carpinteros. Las riberas del río Altube conservan unas bonitas alisedas.

Belunza e Inoso

Inoso está formado por diferentes barrios; Santacruz, Inosondo,... En el núcleo principal se encuentra la parroquia de la Purísima. Fue incendiada en la Guerra Civil, y se restauró. Hay una quesería que elabora queso de Idiazabal. **Belunza** se presenta como un núcleo disperso de caseríos con la iglesia románica de San Pedro en la zona más alta. Restaurada en 1941, tiene pórtico y ventanales con arquivoltas, retablo mayor (1941) y una rica iconografía de animales, motivos vegetales y geométricos que decoran los ventanales de la cabecera, la cornisa, los canchillos y la portada. Las fiestas patronales son en Junio (San Pedro).



RECORRIDO

0 Km. / 0h. 0' El noroeste de Álava, es el lugar elegido para realizar la última salida de la campaña de senderismo de este curso, un recorrido por las inmediaciones del *Parque Natural de Gorbeia*. El pueblo de **Beluntza**, visitado ya en una anterior ocasión, nos servirá de punto de partida. Desde su iglesia, nos dirigiremos a la parte alta del pueblo, para tomar a la derecha y cruzar la carretera. Dejaremos a un lado la ermita de La Piedad y el cementerio, y nos internaremos en el bosque, donde algunos fresnos y numerosas hayas forman un precioso rodal.

0,25 Km. / 0h. 0' Continuando por esta pista llegaremos sin pérdida al, ahora abandonado, **Colegio Izarra**, otrora internado de los hijos de las elites del Estado. Una vez dentro de las instalaciones, deberemos seguir recto, dejando a nuestra derecha el antiguo edificio que albergaba la piscina. Unos 50 metros más adelante tomaremos la desviación de la derecha. Para salir del colegio y volver a adentrarnos en el bosque, tomaremos un sendero herboso que sale a la altura de los últimos edificios. Comenzaremos un descenso por un cerrado y rico bosque, el cual nos llevará a la laguna natural de **Lamioxin**. Merecerá la pena acercarnos y disfrutar del mágico ambiente que nos ofrece el paraje.

1,84 Km. / 0h. 0' Durante un buen tramo de varios kilómetros, nuestro camino dibujará un suave descenso por una ancha pista. Sin tomar ninguna de las desviaciones que encontraremos, llegaremos al *río Oiardo*, donde dependiendo de la cantidad de agua que traiga, nos dificultara el vadeo en mayor o menos medida. Tras superarlo con cuidado, seguiremos por el camino que surge frente a nosotros.

5,75 Km. / 0h. 0' En un primer cruce nos desviaremos a la derecha por un embarrado camino. Hayas y roble marojo nos acompañaran en este tramo. Aunque nos siguen apareciendo alternativas a un lado y a otro del camino, nosotros deberemos seguir siempre por el más evidente.


7 Km. / 0h. 0' Un gran cruce se abrirá frente a nosotros, donde tomaremos el camino de la derecha para continuar nuestro recorrido. Dado el estado del terreno por las abundantes lluvias caídas en los últimos días, el camino se encontrará con bastante barro, por lo que deberemos afrontar la fuerte cuesta descendente que se nos presenta, con mucho cuidado.

9 Km. / 0h. 0' Saldremos del bosque y nos encontraremos una ancha pista de grava y carteles del *Parque Natural de Gorbeia*. A partir de este momento, seguiremos en continuo ascenso. Antes de llegar a nuestro destino de hoy, nos encontraremos con varios caseríos dispersos, algunos de ellos formando barrios como el de *Santa Cruz*.

11 Km. / 0h. 0' Solamente deberemos seguir por la carretera y llegaremos al lugar donde terminara la salida de hoy y a su vez la campaña de senderismo 2009-2010, el pueblo de **Inoso**.

Beluntza-Inoso

Altubeko pagaditik zehar



Kokapena


Ibilbideak bere osotasunean Urkabustaizko lurraz zeharkatzen ditu, izen bereko mendizerraren hegietatik. Mendi zerrak Goiuri, Oiardo eta Uzkiatik ikusita, erlieberik gabeko muinoek osatzen dutela ematen du, baina hormatar handiaren itxura hartzen du Altubeko bailararen hondotik edo A-68 autopistatik begiratuta. Mendizerra honetatik Oiardo edo Jaundia eta Altube ibaiak jaisten dira. Lehenak Goiuriko 100 metroko ur jauzi handian eta bigarrena motelago eta ur jauzi txiki askotan. Ziorragara iritsi baino lehen batzen dira.

Landaretza eta fauna

Batzuk diote Altubeko pagadia penintsulako bigarren handia dela. Litekeena gezurra izatea da, baina ezin daiteke ukatu Gorbeiatik Urkabustaizko mendizerrara zabaltzen den baso hau paregabea dela. Inguru honetan oreina, orkatza eta okil ugari bizi dira. Altube ibaiaren ertzeetan ondo kontserbatutako haltzadia ere badugu.

Beluntza eta Inoso

Inoso hainbat auzok osatzen dute; Santakruz, Inosondo,... Gune nagusian Purisima parrokia dago. Gerra Zibilean sua eman zioten, baina gerora berregin zuten. Idiazabal gazta egiten duen baserria dago herrian ere bai. **Beluntzako** tokirik altuenean San Pedro eliz erromanikoa dago, eta bere inguruan baserri sakabanatuak. Eliza 1941ean berriztu zuten, ataria eta arkibolta duten lehioak ditu, erretablo nagusia ere bai (1941etik). Irudi multzo aberats batek (abereak, landare zatiak, motibo geometrikoak) elizburuaren lehioak, kaneziloak eta atariko apaintzen ditu. Jaiak ekainan dira (San Pedro).



IBILBIDEA

0 Km. / Oh. 0' Aurtengo kanpainaren azken irteera egiteko zonaldea Arabako iparmendebaldea izango da. *Gorbeia*ko Parke Naturalaren aldamenetan hain zuzen ere. **Beluntza** herria, beste behin bisitatuta jada, izango da abiapuntua. San Pedro elizatik, herriko goikalderantz joango gara, eta eskuinetik errepidea gurutzatuko dugu. *La Piedad* baseliza eta *kanposantua* eskuinean utzi eta gero, basoan barneratuko gara, non lizar batzuk eta pago anitzek baso polita osatzen duten.

0,25 Km. / Oh. 0' Pista honetatik jarraituz gero, orain abandonatuta dagoen **Izarra** eskolara ailegatuko gara, lehen Estatuko maila goreneko seme-alaben barnetegia zena. Behin instalazioen barruan, zuzen jarraitu beharko dugu, igerilekuaren eraikin zaharra eskuinean utziz. 50 metro aurrerago eskuinerantz desbideratuko gara. Eskolatik ateratzeko eta berriro basoan barneratzeko, azkeneko eraikinen ondotik ateratzen den belar bidea hartuko dugu. Baso aberats eta polit batetik hasiko da jaitsiera, zeinek **Lamioxin** laku naturalera eramango gaituen. Merezi du hurbiltzeak, hemen sortzen den giro magikoaz gozatu ahal izateko.

1,84 Km. / Oh. 0' Kilometro batzuk eman beharko ditugu pista zabal batetik jaisten. Desbideraketarik hartu gabe, *Oiardo ibaira* helduko gara, non daraman ur kopuruaren arabera, errezagoa edo zailagoa izango da ibaitik igarotzea. Kontu handiz gainditu eta gero, gure aurrean agertzen den bidetik jarraituko dugu.

5,75 Km. / Oh. 0' Lehenengo bidegurutzean, eskumara jo beharko dugu, lokatzez beteta dagoen bide batetik. Pagoak eta ametsak agertuko dira eremu honetan. Alde batetik eta bestetik aukera batzuk agertu arren, guk beti bide nagusitik segitu beharko dugu.

7 Km. / Oh. 0' Gure aurrean bidegurutze handi bat irekiko da, hemen eskuinera joko dugu gure ibilbidea jarraitzeko. Azken eguneko euriteak direla eta, bidea lokatzez beteta aurkituko dugu, horregatik kontu handiz ibili beharko dugu, gure aurrean agertzen den aldapa behera jaisteko.

9 Km. / Oh. 0' Basotik aterako gara eta legarrezko pista zabal batetik jarraituko du ibilbidea. *Gorbeia*ko Parke Naturalaren kartelak ikusi ahal izango ditugu. Hemendik aurrera, etengabeko igoera bati aurre egin beharko diogu. Gaurko helburura heldu baino lehen, baserri batzuekin egingo dugu topo, Inosoko auzoak dira eta *Santa Cruz* horietako bat.

11 Km. / Oh. 0' Bakarrik geratzen zaigu errepidetik jarraitzea gaurko ibilbidea (eta horrekin batera aurtengo kanpaina) amaitzeko lekura heltzeko, hau da **Inoso** herrira.